

## **HELBURUA, IKUSPEGIA Y BALOREAK**

### **Helburua**

Durango Kirolak<sup>1</sup> udal kirol instalazioak kudeatzen dituen zerbitzu publikoa da, eta bere helburua Durangoko herritarrek bizitza kalitate hobez gozatzea da, bai norbanako mailan eta baita maila kolektiboan ere (klubak, ikastetxeak eta elkarteak). Bide horretan, kirol jardueren bidez, bizitza eredu osasungarriak bultzatzen ditugu.

Gurean ditugu:

- Lan-talde profesionala, konprometitua eta etengabeko egokitze prozesuan dagoena.
- Bikaintasuna helburu duen kudeaketa sistema.

Eskaintzeko:

- Kirol jarduera eta instalazio eskaintza zabala eta anitza
- Zerbitzu eskuragarria, bai ikuspuntu ekonomikotik, fisikotik, eta baita kudeaketa aldetik ere.
- Zerbitzu jasagarria, ekonomia eta ingurumenari dagokionez.

### **Ikuspegia**

2017ra begira, modu berritzailean bete gura dugu gure helburua, eta gure sektorean erreferente izatea lortu nahi dugu arlo hauetan:

- Erabiltzaileen asebetetzea; 10etik 8koa izatea.
- Durango Kirolak-eko langileen asebetetzea; 10etik 8koa izatea.
- Ziurtagiriak lortzea, irisgarritasuna, jasagarritasuna eta instalazioen kudeaketaren eraginkortasuna bermatzeko.
- Durangarrek euren ingurunearekin konprometitutako erakunde legez ikusi gaitzate.
- Marka-irudi positiboa izatea gure erabiltzaileen artean, Durango mailan eta Bizkaia mailan.

### **Baloreak**

Pertsonak ematen diote zentzua gure jardunari, eta pertsonak dira gure egitekoen muina; bai pertsona erabiltzaileak (potenzialak eta errealak), eta baita langileak ere (zuzenak eta zeharkakoak). Horregatik, hauek dira gure baloreak:

- Gardentasuna (Informazio eskuragarria, komunikazio erraza...).
- Enpatia (Besteen lekuan jartzea, errespetua, hurbiltasuna...).
- DK-ko kide izatearen gogobetetzea.
- Talde-lana.
- Profesionaltasuna (zintzotasuna, erantzukizuna, konfidentzialtasuna, prestutasuna, parekidetasuna, zerbitzu publikoaren bokazioa, proaktibitatea, berrikuntzara eta hobekuntzara zabalik egotea...).
- Erantzukizun soziala.

---

<sup>1</sup> Durango Kirolak Durangoko Udalaren Erakunde Autonomo bat da.